R. M. Azkue eta J. Urkixoren omenez

Bilbon, **Euskalduna** Jauregian,
2001eko irailaren 17, 18 eta 19an

EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ

XV. Biltzarra

IKER-19

Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / Académie de la Langue Basque

Bilbo
2008

EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ

Hizkuntza ereduak, hiztegigintza, hizkuntzaren historia

Euskaltzaindiaren Nazioarteko
XV. Biltzarra:
Agiriak

Azkue eta Urkixoren omenez,
Bilbon, 2001-IX-17/19an



IKER-19

EUSKALTZAINDIA
Bilbo, 2008

Euskaltzaindia. Biltzarra (15.2001. Bilbo eta Baiona)

Euskaltzaindia XXI. mendeari buruz/ Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra Azkue eta Urkixoren omenez, Bilbon, 2001-IX-17-19; Jardunaldi hauen agiriok argitaratzea Joakin Gorrotxategi Txurruka irakasle jaunak paratu du.

Bilbo: Euskaltzaindia, 2008

XX, 568 orr; 23 cm.--(*Iker;* 19)

ISBN: 978- 84-95438-26-3

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

© Euskaltzaindia/ R.A.L.V. /A.L.B.

Plaza Barria, 15- 48005 BILBO

E-posta: info@euskaltzaindia.net

* * *

Jardunaldi hauen Agiriok argitaratzea Joakin Gorrotxategi Txurruka irakasle jaunak paratu du.

* * *

ISBN: 978-84-95438-26-3

Lege-gordailua: BI- 237 -08

Fotokonposizioa: mccgraphics-evagraf, Alibarra, 64, 64-01010 VITORIA/GASTEIZ

Inprimategia: mccgraphics-elkar, Larrondo Beheko Etorbidea, 4.eraikina, 48180 LOIU (Bizkaia)

Muga-arazo batzuk: *zain* eta *zale*[1]

Elixabete Perez Gaztelu

1. Atarikoa: muga-arazoak eta helburuak

Muga-Arazoak

> Ez da inoiz gauza erraza izan hitz-elkarketa non hasten den eta non bukatzen jakitea: ez euskararen eremuan eta ez, egia esan, atzerri-hizkuntzen kasuan ere. (…).
>
> Euskarari dagokionez, bi dira, besteak beste, mugarri finko baino sarriago istilu-iturri gertatu ohi diren puntuak: hitz elkartuen eta eratorrien arteko muga, alde batetik; eta, bestetik, hitz-elkarketaren eta sintaxiaren artekoa.(…)
>
> Bukaeran *-dun, -gin/-gile, -zain/-zale, -bide, -aldi, -ola, -tegi,* … duten eraikuntzak hitz elkartuak dira, ala eratorriak? (H-E/1, 22-25).

LEF batzordearen hitzok kezka-kate luze baten ispilua dira: euskalariek ez dute gisa berean jokatu elementu lexiko batzuk sailkatzean. Horren erakusgarri dugu, adibidez, Campionek (1884) edo Lopez-Mendizabalek (1943) elkarketan sartu dituztela Uhlenbeckek (1909), Azkuek (1923-25), Lafittek (1944) edo Villasantek (1974) erator-atzizkitzat jotako hainbat[2]. Baina beti ere mugakotzat jotzen dituztela: bi baliabide lexikologikoren –eratorbidearen eta elkarketaren– artekotzat, hain zuzen ere. Alegia, bai aspaldi samarreko gramatika-ikerlanetan (aipatu ditugunak), bai gerokoetan (Azkarate (1990, 1991), Euskaltzaindia (H-E/3, H-E/4)) errepikatzen den zalantza da elementu horien izaera, eta, honenbestez, eratzen duten hitzarena. Horietako batzuentzat sortu zen, hain justu, "erdi-atzizki" deizioa, Marchand-en (1960) *semi-suffixe* edo Dimitrescu-ren (1969) *suffixoïde* terminoen bidetik.

Mugako eraikuntzen gaia (baliabide lexikoen artekoa, nahiz lexikoaren eta sintaxiaren artekoa) guztiz interesgarria eta gaurkotasun handikoa da[3]. Baina batzordeak elkarren ondoan aipatzen dituenei begiratu besterik ez dago jabetzeko aski gai zabala dela, muga-arazoak sortzen dituzten eskuineko osagai lexikoak gisa berekoak ez izaki. Nolanahi dela ere, garbi dagoena da "istilu-iturri" ez direla "erdi-atzizki" dei-

1 Lan hau egiteko *Estructuras morfológicas y estructuras sintácticas: las fronteras de la composición. Descripción, teoría y diccionarios.* DGES PB96-0457-C03 proiektuari emandako laguntzaz baliatu gara. Bestalde, eskerrak eman beharrean gara Esther Zulaika, Juan Carlos Odriozola eta Igone Zabalari egin dizkiguten ohar jakingarriengatik; okerrak gureak besterik ez dira.

2 Honek ez du esan nahi guztiak beti bat datozenik sailkapenean.

3 Azken aldiko ikerlan frankok ildo horixe dute jorrakizun.

tuak bakarrik. Zehatz esan, arazoa Euskaltzaindiaren (H-E/3, H-E/4) lau saili dihoakie:

- *andregai* moduko "erdi-atzizkiak" (*aldi, bide,*…. eskuineko osagaiak dituztenak) (H-E/4, 79).
- *hitzaurre* moduko "deiktiko"etako "batzuk" *(alde, aurre…*) (H-E/4, 80).
- "Egile-elkarte sintetiko errokariak" (*-gin, -gile, -dun, -zain*)[4]. (H-E/4,64).
- "Izaera-elkarte" (H-E/3,127hh.) nahiz "asmo-elkarte"etan (H-E/4,70) aipatzen duten *zale.*

Zer dute, baina, guztiek batean?

Oro har, **maiztasuna** aipatzen da [Henzen (1947), Marchand (1960), Guilbert (1971, LXXIII), Euskaltzaindia (H-E/4)…]. Elementu horiek beste izen edo izenondoak baino askoz maizago darabiltzagu beste kategoria lexiko baten eskuinean hitz eratu bat osatzen. Honek, ordea, delako elementuaren jokamoldearen berri eman dezakeen arren, ez du arrazoia argitzen, ez digu esaten zergatik erabiltzen den horren maiz hitz-eraketan. Gainera, bistan da zabalegia eta estuegia dela aldi berean, izan ere: maiztasun hutsa aski al da elementu lexiko bat atzizkitzat hartzeko? Eta, kontrara, orduan zergatik ez "mugako"tzat jo beste kategoria lexiko bati loturik oso maiz darabiltzagun *multzo, talde, zati, modu, usain…* mugakizunak[5], esate baterako?

Bilakaera ere aipatu izan dute [Uhlenbeck (1909), Azkue (1923-25), Villasante (1974), Euskaltzaindia (H-E/4)]: hitz beregaina zena, denboraren joanean atzizki bilakatua da. Baina, berriz ere, gertatu dena esaten zaigu, ez zergatik gertatu den delako bilakaera. Ez dirudi, hortaz, bilakaerara jotze hutsak arrazoiak argitzeko balio duenik.

Honenbestez, maiztasunak eta bilakaerak gertakariak argitu baino areago deskribatu egiten dituzte.

Irizpide horiek askietsi ez eta arrazoiak bilatzeko saioa egin dute hainbat ikertzailek. Maiztasunak osagai horren **esanahia aldatzean** izan behar du euskarria [Bally (1932,244), Rohrer (1967,16), Lifetree-Majumdar (1974,65-67)…]. Lotuta nahiz aske joan, delako hiztegi-sarrerak esanahi-aldaketa sendorik ez badu, ezin atzizkitzat hartu eta hitz elkartuko osagaitzat jo beste erremediorik ez dago.

Giurescu-k (1970, 263-264), Dimitrescu-ren (1969,3-4) suffixoïde-en azterketari eransten dio delako osagaiak **beregaintasuna** galdu ote duen ere kontuan hartu behar dela: osagai hori bakarrik ezin erabil badaiteke atzizki bilakatu den seinale da.

Azkaratek (1991) **kategoria-aldaketa** ere aipatzen du, adierazgarria izan baitaiteke osagai bat lotuta doanean eta beregain darabilgunean kategoria berekoak ez izatea.

Gure azterketan ikusiko dugu noraino diren baliagarriak irizpide horiek eta noraino beharko ditugun beste teoria batzuekin osatu: Morfologia Sortzailearen ekarria ezinbestekoa gertatuko zaigu.

Guztiak lotzen dituzten arrazoiak egonagatik, gaiaren zabalak makurtu gaitu mugako eraikuntzen artean hautatzera[6]. *Zain* eta *zale* jo ditugu begiz orain, itxuraz bestelakoak izanik ere, bai baitute batean ezaugarririk. Bestalde, *zale* aukerakoa da lexikoaren barrengo mugetan ez ezik, lexikoaren eta sintaxiaren artekoetan ere arakatzeko.

4 Errepara grafiari: atzizki balira bezala idatzi dituzte.
5 Nahiz hauek ere bereziak izan egitura-harremanaren ikuspegitik (Perez Gaztelu (2001)).

Honenbestez, hauexek dira gure helburuak:
- Arrazoietan arakatu: zer dela eta sortu dute zalantza elementu horiek eta ez beste batzuek, zer dute, bada, berezi mugakotzat jotzeko.
- Batzordeak erantzun gabe utzi zuen galderari (aldez) erantzun. Azterketak eramango gaitu zain, zale hiztegi-sarrerak direla eta, honenbestez, hauek eskuinean dituzten eraikuntza lexikoak hitz elkartuak direla aldarrikatzera.

2. ZAIN

Euskaltzaindiak (H-E/3, H-E/4) *zain* eskuinera daramaten eraikuntza lexikoak egile-elkarte sintetiko errokarien artean sailkatzen ditu bigarren osagaitzat *-gin/-gile* eta *-dun* dutenekin batean[7]. Baina bere izaerari buruzko zalantza ere jasotzen dute, euskalariak harturik lagun: izen beregaintzat daukate baina beste izen bati lotuta maizago darabilgula ere badiote. Hortaz, zer da *zain*, atzizkia ala izen beregaina? Eta beregaina bada, zergatik darabilgu maizago beste kategoria lexiko bati lotuta?

Bestetik, berriz, Villasantek (1974,139), Azkaratek ((1990,390); (1991,106), Euskaltzaindiak (H-E/3,57)[8] *zain egon* predikatu konplexuarekin lotzen dute: zein ote *zain(a) izan* izaki mailako predikatuaren (1a) eta *zain egon* egoerako predikatuaren (Zabala (1993)) (1b,1c) arteko lotura?

(1) a artzaina da
b artzain dago Nevadan
c zure zain dago

Eta *zaindu* aditz eratorriarekin, nolako harremana du?

Hala izanik, kategoria- eta esanahi-aldaketa azaldu beharko liratekeela dirudi.

2.1.1. Zain izen beregaina

Jo dezagun lekukoetara ikusteko *zain* beregainaz hitz egiterik ba ote dagoen.

Zain-en osagarria erreferentzia mugatukoa denean, ezin era dezakegu hitzik (*ene anaiazaina), ezinbestean kate sintagmatikoren batera jo beharrean gaude: IS(GEN) + *zain* da ohikoena (2). Arestiko debekurik ez dagoenean ere, nahiz eta eraikuntza lexikoa litekeena izan, hiztunak jo dezake sintaxira (3a,b). Baita osagarria isilpean duten atribuziozko egituretan ere (4).

(2) Ni ote naiz ene anaiaren zaina? (KM MEIG VI - 148) / (G.H.) ene anaiaren zaintzailea / *Ni ote naiz ene anaiazaina?
(3) a otsoa ardien zain (Es.zah.) / (G.H.) otsoa artzain, ardi zain, ardiak (ardien) zaintzen
b Gibelerat heldu zauku laster, eriaren zainek erranik ez dela gaizkiago eta, hain xuxen, orduan lo dagola (HU Aurp - 182) / (G.H.) erizainek erranik
(4) Jangoikoak emonik dauko gizon bakotxari bere Angeru gordegilla, zaina, begiragillea (Añ Ggero - 354) / (G.H.) zaindaria / zaintzailea

6 Perez Gaztelu (2001) lanean xehekiago jorratu ditugu horko beste "istilu-iturri" direnetako batzuk.
7 Ohartzen dira, nolanahi dela ere, guztiak ez direla gisa berekoak. *-gin, -gile -dun* atzizkitzat jotzen dituzte. Beregaintasunaren irizpideak hemen garbi bereiziko lituzke batzuk eta bestea. Hortaz, elkarteetatik atera eta eratorbidean aztertzekoak bide lirateke, *-(l)ari, -ketari*… 'egile' adierako izen-sortzaileekin batean.
8 "eguna zabaldu zain"… bezalakoak aipatzen ditu; perpausen elipsiaren bidez azaltzen ditu. Ez ditugu hemen aztertuko.

Egia da adibide hauetatik ezin ondoriozta daitekeela gaurko hiztunak lagunarteko edo eguneroko hizkera arruntean halakoak barra-barra egiten dituenik; areago, seguru aski eman ditugun ordezkoak (GH) aiseago egingo ditu. Baina ulertzeko eragozpen larririk ere ez luke izango, eta, nolanahi dela ere, ez lituzke gramatikaz kanpokotzat joko.

Era berean, hiztun horrek berak (5b) bezalako "oihartzun-galdera" (EGLU-V,41) onartuko luke, eratorbidean ezinezkoa da (5d).

(5) a haurtzaina da
b zeren/noren zaina dela esan duzu?
c erretzailea da
d *zeren/zer -tzailea dela esan duzu?

Horrek dakarren ondorioa da, gure ustez, ezin esan daitekeela *zain* atzizkia denik. *Zain izen beregaina, hiztegi-sarrera da.*

2.1.2. Zain(a) izan, zain(du), zain egon

Ba ote loturarik *zain* hauen artean?

Ez bide dago aldezterik *artzain*-en *zain, zaindu* aditzaren oina denik: ez dugu [A zain] motako elkarturik euskaraz. Areago, *zaindu* aditza *zain*-etik geroztik eratorria delakoan gaude.

Beste aukera *zain egon* predikatu konplexutik abiatzea da. Badirudi Azkaratek (1991,106) honen alde egiten duela, baina ezin azal ditzake kategoria- eta azpikategorizazio-aldaketak. Azter dezagun hau.

Batetik, 'itxoin', 'itxaron' adiera duenean ez dugu egitura lexikorik eratzen: *umezaina* 'umeak zaintzen dituena' besterik ezin da izan, ez 'umeen zain dagoena'.

Bestetik ez genuke atzendu beharko predikatu mota beretik abiatuta baditugula [I *zain egon/ ibili/joan…*], egoerako predikatuak, baina 'kontzen', 'gordetzen' eta ez 'itxoiten', 'esperoan' adiera dutenak ("jardun-elkarte sintetikoak" (H-E/3,57)). Literaturako lekukoak ugariak dira: lehengo (3a) (predikazio mota batean), edo (6) ekar daitezke, besteak beste.

(6) Presondegiaren zain ezarriak izatu ziren soldaduak loharkatu ziren denak, eginik elkharren artean, etzuela balio gauik galtzea jadanik erdi hila zen gizon baten gatik (Jnn Sbi - 151)

Ez da harritzekoa [+gizakia, +egilea[9]] azpikategorizazioko izenek antzeko predikatuak osa baititzakete: *apaiz egon, misiolari ibili*[10] ,…

Gauzak honela, hona gure ustea:
Zain ('zaintzen duena') izenki predikatua (eta *zaindu* aditzaren oinarria dena) egun ia erabat beste izen bati lotuta darabilgu, elkartea zilegi denean behintzat.
Izen beretik abiatuta bi predikatu konplexu mota sortu ditugu: batek osagaietatik eskuraturiko esanahia du (*significado composicional*) eta hiztunak berariaz ikasi beharrik ez du ('gorde', 'kontu', 'gordetzen / kontzen egon'); bestearena, berriz, ezin da osagaietatik ondorioztatu, hiztunak predikatu osoa ikasi behar du: 'itxoin', 'itxaron', 'esperoan egon,[11]…

9 'actor' eta 'agente' bereizi gabe darabilgu.
10 Xehetasunetarako, Zabala (1993).
11 Erromantzeetako *guardar* eta *aguardar* aditzak etorki berekoak izatea gure hipotesiaren beste euskarri bat izan daiteke?

2.2. **Zain** ***elkarteetan***

2.2.1. Mota morfologikoak eta osagaien ezaugarriak

[I I]I: artzain, haurtzain, erizain, atezain, euskaltzain, bizkartzain, arimazain…

Ezkerreko osagaia izena da: biziduna, nahiz bizigabea. Ia guztiak konkretuak dira (*arima…* edo kenduta). Hitz elkartua beti [+I, +gizakia, +egilea] da. 'egile' adieraren ispilu garbia da hitz eratu asko lanbide edo ogibide izenak izatea.

2.2.2. Argumentu-egitura1[12]

Zain-ek argumentu-egitura du[13]: bi argumentukoa da. Kanpoko argumentua sintaxian asetzen du eta bere barneko argumentu osagarria ase daiteke:

- egun ia beti lexikoan, bere ezkerreko izenak: ***eri****zaina…*

- baina baita sintaxian ere, IS(GEN) batek ase dezake: ***erien*** *zaina…*

2.2.3. Osagaien arteko egitura-harremanak

Zain buruak bere kategoria eta azpikategorizazioa iragazten dizkio hitz elkartuari eta honela honek kanpoko argumentua beretzen du. Elkarteko ezkerreko osagaia, berriz, bere argumentu osagarria da: "osagarri-buru" egitura-harremana dugu.

2.2.4. Emankortasuna

[I *zain*] mota oso emankorra da. Lanbideak izendatzeko hainbat izen sortu ditugu bide honetatik*: bizkartzain, telefonozain, kutxazain, gauzain*[14] „…

3. ZALE

(1) a ez naiz ni gerraren zale, baizik bakearen alde [Xenp.]
b neska mutilzaleak oinak arin ditu
c azkenean ez ziren arrimatuzale [Xenp.]
d Honenbestez esana dago, noski, ez naizela aurrerazaleegia, baizik eta atzerazale (…), geldizale edo astiro ibilzale horietakoa (KM MIH - 340)
e Ez da, bada, harritzeko gure artean ere zinemak, begi-festa merkeen horrek, gero eta zale gehiago izatea (KM MEIG I - 123)
f Zuk egiten dezun guzia ikusten du, zure itzak aditzen ditu, zure zale eta deseoak ezagutzen ditu, zure gogorazio eta pensamentu guziak barrunt *zen* ditu (Arr May - 83)
g esnezalea bezala, atez ate [SEH]

12 Selkirk (1982), Lieber (1983), Grimshaw (1990), Grácia eta beste (2000) lanen bidetik, besteak beste.

13 Arrazoi berak balio al du Euskaltzaindiak (H-E/3,38) garbitu gabe uzten dituen *oilo-lapur, etxe-jabe* bezalako egile-elkarte sintetiko soilen mugakizunen jokamolderako?. Onartuko bagenu egile-izen hauek guztiek argumentu-egitura dutela eta bere ezkerreko osagaia bere argumentu osagarria dela ez genuke Euskaltzaindiaren hipotesietara —atzeranzko eratorbidera edo zero atzizkira— jo beharko. Hartara, elkarte hauek guztiak egile-elkarte sintetiko soiltzat hartu beharko lirateke. 7. oin-oharrean genioena kontuan hartuta, berriz, egile-elkarte errokaririk ez legoke.

14 Errepara hitz hau besteak ez bezalakoa dela: gauzaina ez da 'gaua zaintzen duena', 'gauez zaintze lanak egiten dituena' baizik, mendekotasunezko izen elkartu arrunta, alegia ('garaia' erlazio logikoa adierazten duena).Honek indartuko luke zain-en izaera bereskukoa.

Adibideok erakusten dute auzi bat baino gehiago garbitu beharrak direla.

Atzizkia edo hiztegi-sarrera da? Bai baititugu (1a) eta (1b). Baina, hizkia izan, hiztegi-sarrera izan, harrigarria da eraikuntza lexikoetan batere ohikoa ez den kate sintagmatiko bati lotuta agertzea (1c,d). Hau ere *zale* bera ote? Eta (1e), (1f), (1g) bezalakoak, arestikoekin batean sailkatzekoak al dira? Denak mota berekoak al dira?

Galdera hauei erantzuten saiatuko gara.

Nolanahi dela ere, gogoan izan dezagun Euskaltzaindiak *zale* eskuineko osagaia duten hitz eratuak izenondo elkartutzat hartu dituela, beti sail berean kokatu ez baditu ere[15].

3.1. Zale izenondo beregaina

Zale bada hiztegi-sarrera. Esate baterako, izenondo kalifikatzaileek (Zabala (1997)) onartzen duten konparatzea onar dezake.

(2) a Lau aldiz baretu zan, e[t]a lauetan berriz ekin zion farrari, lenengoan bezain zale ta bero (Berron Kijote - 226).
b Eta halatan da gure Iainkoa ere hetarik gutiziosago, desoriosago, eta zaleago (Ax- 115).

Ez edozein moduz, ordea: "zer/nor bezain zalea den, zeren bestea baino zaleagoa den…" jakiteko bidea eman behar digu testuinguruak.

Horregatik maizago darabilgu "zeren zalea" den zehazten duen IS(GEN) ezkerretan duen eraikuntza (3a), edo, batez ere, hitz-elkartea[16] (3b). Eta horrexegatik (4a) eta (4b) aukeren artean hiztunak aiseago adituko du egitura lexikoa duela (4a) eta ez sintagmatikoa (4b):

(3) a Euskaldun zaharrak errosarioaren oso zaleak ziren (SEH)
b Gure aiton-amonak oso arrosariozaleak ziren
(4) a (X) neskazalea da
b ?neska /zalea da

Hortaz, badugu zale bere sintagmak islatzeko gai den **izenondo hiztegi-sarrera,** izaki mailako predikatua ('isuria, jaidura, norbaiten/zerbaiten aldekoa, jarraitzailea'), baina izenondo honek ez du erabilera erabat askea: "zeren zalea den" zehazten duen argumentu osagarri baten beharra du. Osagarri hori lexikoan (batez ere) eta sintaxian ase daiteke.

3.2. Zale eskuineko osagaia

3.2.1. Kate sintagmatikoetan[17]

1.IS + *zale:* alkandora ederzale, teoria handi eta solemnezale…

15 Sailkapen zaharrena ("elkartu sintetikoa" (H-E/1,44)) zergatik ez duten aintzat hartuko eta "izaera-elkartetzat" zergatik jo behar den arrazoitu eta horren arabera aztertu ondoren (H-E/3,30,121), azken lanean (H-E/4,70) "asmo-elkartetzat" hartzen dira era honetan osatuak.

16 Uste dugu gaurko hiztunak elkartua lehenetsiko lukeela. Baina adibide horiek eraikuntza sintaktikoetara eramango bagenitu, behar bada, lehenago joko genuke IS(GEN)etara ISetara baino, alegia: "oso jaki on eta edari onen zale", "oso jaki on eta edari on zale" baino. Baliteke hizkuntzaren prozesamenduarekin lotura izatea: zenbat eta sintagmak edo perpausak osagai gehiago (eta urrunago) izan, orduan eta osagaiak nolabait lotzeko premia handiagoa (Oroi Axularren "on da" / "gauza ona da"). (Ortiz de Urbina (1998), Axularren *ezen*-en erabileraz, ikuspegi honetatik).

17 Gure sailkapena ez dator puntuz puntu bat Euskaltzaindiarenarekin (H-E/1,127-129).

Zale-ren ezkerreko osagaia, bere argumentu osagarria, kate sintagmatikoa da: determinatzailerik gabeko IS.

Kate hauek interesgarriak dira lexikoaren eta sintaxiaren arteko mugen auziari dihoazkiolako bete-betean: alde batetik *zale*-k ezkerretara eraikuntza sintagmatikoa du —elkarketatik urruntzen duena— baina, era berean, IS horiek ez daramate determinatzailerik, eta hori sintaxian, oro har, ezinezkoa da[18].

1.2. IS(GEN.) + *zale:* euren zale[19], gerraren zale, arrosarioaren zale, gauza zaharren zale, zorritsuen zale, erreka soinuen zale…

Ohikoena da.

1.3. Oso emankorra ez bada ere, ez da ezinezkoa *zale*-k beste postposizio-sintagma batzuk osagarri izatea: PS(ADLAT.): apustu mota askotara zaleak dira gipuzkoarrak[20], PS(INS.): presuna handituak ere hetaz zale dira. Gutxiagotan PS(SOZ.): besteen gauzekin zaleak dira[21]…

2.1. Perpausa + *zale*

Perpaus osoa ere izan daiteke *zale*-ren osagarria.

Partizipio biluzia aukeratzen du batez ere[22]: azkenean ez ziren arrimatuzale; ondo bizizale…; arrautza jarrizale, izen handi bat irabazi zale, esaldiari hitz alferrak inausi-zale…

Ez beti, ordea:-T(Z)EN: sudurrez mintzatzen zale, inoren ahultasunak agertzen zale…;-T(Z)EKO: joateko zale; inori erakusteko zale…;-T(Z)EAREN: burua makurtzearen zale, ezkontza haustearen zale… Baina beti ere perpaus jokatugabea, aditz-izena duena du mendean.

Zale (izan) predikatuaren eta mendeko perpausaren subjektuak erreferentziakideak dira. Lehenak bigarrena semantikoki kontrolatzen du[23].

Hortaz, *zale*-k era askotako kate sintagmatikoak onartzen ditu osagarri moduan, baina IS denean IS(GEN), eta perpausa denean partizipio biluzia izatea da ohikoena.

3.2.2. Elkarteetan

3.2.2.1. Mota morfologikoak eta osagaien ezaugarriak

[I Izond]$_{Izond}$: ardozale, musikazale, arimazale, edertasunzale, abertzale, mutil-zale…; Lizardizale, Maozale, Tolstoizale…;

herri-festazale, h-zale, jeltzale…

[Izond Izond]$_{Izond}$: ederzale, garbizale, fanfarroizale…

1.[I + *zale]*$_{Izond}$.

18 Postposizioen osagarriak bai, mugatzailerik gabeko ISak izan daitezke. Bestalde, horixe bera gertatzen da usain edo pilo mugakizun "bereziak" dituzten "menpekotasunezko izen elkartuetan" (H-E/4,78), esate baterako: jantzi busti usain, ezkongai gazte pilo… Behar bada denentzako argibide bakarra ez badago ere, errepara diezaiogun honi: muga-kizun hauek ere osagarri baten premia dute (zeren usaina, zeren piloa) erreferentzia bereganatzeko.

19 Izenordainek genitibo-atzizkia eraman behar dute: *Ni zale / Nire zale… Alegia, ISØ / IS(GEN) aukeran duten leku-denborazko postposizioek duten murrizpen bera dute: etxe(aren) aurrean, baina *Ni aurrean / Nire aurrean...

20 Hau da, beste batzuekin batean, zaletu aditz eratorriak izaten duena (IS(GEN) baino areago): "lurreko gauzetara zale-tu", "baña Indianoagana etziñan zaletu"… .

21 Soziatibo / instrumental aukera euskalki kontua izan daiteke.

22 Bada adibideren bat edo beste aditzoina duena, baina arras gutxi dira.

23 Erka: "ezkontza haustearen zale" (kontrolatua) / "ezkontza hautsiaren zale" (ez kontrolatua).

Joriena da. Era guztietako izenak onartzen ditu: bizidunak nahiz bizigabeak, konkretuak (gehienak) eta abstraktuak. Morfologiaren ikuspegitik ere denetik dugu: soilak, eratorriak, hainbat motatako elkartuak.

Izen juntatuak ere izan daitezke mugatzaileak: [ale edo garau]zale, [kontzeptu eta arrazoi]zale…

Izen bereziak ere bai, mendekotasunezko elkarteetan bitxia dena: *Mao, Tolstoi, Lizardi…* Ez dira asko eta XIX. mendetik hona sortuak dira ia denak.

Metahizkuntzako elementuak: *h...*; laburdura edo akronimoak: *jel.*…

2. Izenondoa + *zale:*
Ia adibide guztiak XX. mendekoak dira.

Izenondotzat hartuagatik oso litekeena da gehienetan hiztunak *zale* izen bati lotu diola uste izatea: izena isilpean gordetzea litzateke tarteko.

Eraikuntza hauek guztiak [I Izond] motako **mendekotasunezko izenondo elkartuak** dira.

3.2.2.2. Argumentu-egitura

Zale buruak bi argumentuko argumentu-egitura du. Kanpoko argumentua sintaxian asetzen da eta barneko argumentu osagarria ase dezake bai lexikoan bai sintaxian:

- lexikoan: bere ezkerreko izenak asetzen du eta mendekotasunezko izenondo elkartuak eratzen ditu.
- sintaxian: IStik hasi eta mendeko perpaus ezjokatuetaraino (EGLU-V).

3.2.2.3. Osagaien arteko harremanak

Zale buruak bere kategoria eta azpikategorizazioa iragazten dizkio hitz elkartuari eta honela honek kanpoko argumentua beretzen du. Elkarteko ezkerreko osagaia, berriz, bere argumentu osagarria da: "osagarri-buru" egitura-harremana dugu.

3.2.2.4. Emankortasuna

Hitz elkartu asko sortu dira, terminologiak barne: *abenturazale, heroinazale, elektroizale, europazale, nukleozale, itzalzale, berozale...*

Hiztunak gisa honetako elkartuak bazterrik gabe era ditzake; horregatik euskal hiztegiek ez dituzte era honetako hitz eratu asko jasotzen.

Elkarteetatik kanpo ere askotan baliatzen dugu, batez ere IS(GEN) osagarria duela.

3.3. Zale *izena*

Euskal hiztegi batzuek *zale* (izond.) hiztegi-sarreran izen kategoriako erabilera (5b) eta izen kategoriako beste azpisarrera bat ere (5a) ('isuria', 'nahia'…) jasotzen dituzte.

(5) a Zuk egiten dezun guzia ikusten du, zure itzak aditzen ditu, zure zale eta deseoak ezagutzen ditu, zure gogorazio eta pensamentu guziak barruntzen ditu (Arr May - 83).
b Osasuna futbol taldearen azken emaitzak haserrea sortu duten zaleengan (SEH).

Ez dira asko. Daudenak bitan bana daitezke dituzten ezaugarrien arabera:
- izen [-biziduna] 'nahia…' (5a). Ez da hagitz emankorra. Gaurko hiztunak aiseago jotzen du beste kide batzuetara. Ez du hitz eraturik osatzen; hortaz, ez du "muga-arazorik" sortzen.
- izen [+gizakia] 'isuria duena…' (5b).

Azkena, izena bada ere, pentsa daiteke "buru hutsa" duen IS dugula. Gertakari hau aski arrunta da gizakiei dagozkien nolakotasunak adierazten dituzten izenondoak dituzten IISSetan. Gainera, jakina da izenaren eta izenondoaren arteko mugak euskaraz ez direla beti gardenak izaten (FHV,512).

Argumentu-ikuspegiaren arabera hitz eginez, esango genuke hor zale-ren argumentua estari dagoela, baina testuingurutik nekerik gabe berreskura daitekeela. Bestalde, pentsa ere daiteke, Bosqueren bidetik (1990,113), hemen zale (izond.) izaki baten ezaugarriaren berri ematetik saila edo taldea adieraztera pasa dela[24].

Ez dugu, hortaz, eragozpen larririk ikusten hau ere zale izenondoarekin batean sailkatzeko. Horren erakusgarria da, esate baterako, (6a) eta (6b) adibideen arrotza eta onargarritasuna, hurrenez hurren:

(6) a ?zale zaharrak etxean geratu dira eta gazteak kalean
b ni zu baino zaleagoa naiz

Alegia, izenek ez bezala, izenondoa nekez[25], baina, izenondoek bezala, mailakatzea onar dezake testuinguru jakinetan (6b).

3.4. -zale erator-hizkia

Azkenik dugu Azkuek (1923,§97,80), Villasantek (1974,140), Euskaltzaindiak (H-E/3,129) eta bestek bestelakotzat duten *-zale.* Lehengo (1g) adibidearen modukoak, alegia *egurzale, esnezale.*… Ez dirudi txoil emankorra.

Ezkerreko osagaia, oinarria [-biziduna, +konkretua] ezaugarriko izena da. Hitz eratorria, berriz, [+I, +gizakia, +egilea] da.

Esanahi- eta kategoria-aldaketen irizpideak baliagarriak dira *-zale* hau eratorbidean sailkatu eta *zale* izenondotik bereizteko:

1) *zale* hiztegi-sarrerak ez bezala izen eratorgaiari, oinarriari, hark ez duen 'egile' adiera dakarkio. -(l)*ari, -ketari.*… atzizkien jokamolde eta banaketa bera du.
2) Hitz eratorria ez da izenondoa, izena baizik.

Labur beharrez, aipatu besterik ez dugu egingo *-zale* eta *-tzaile* atzizkien arteko harreman argitu beharrekoak (atzizki beraren bi aldaera? –baina oinarrien kategoriak

24 Baina izen bihur daitezkeen adjektiboak bihur ez daitezkeenetatik bereizteko baliatzen dituen frogak ("test de la «sustantivación valorativa»") ez bide dirudi euskararako balio dutenik (gazt. 'es aficionado' / 'es un aficionado'), eusk.: *zale bat da.

25 Gehienez ere amorratu, porrokatu… bezalako adberbio-izenondo indartzaileak (?) ("adjetivos adverbiales intensionales" (Demonte 1999, 139-141 eta 204-212)) "zale amorratuak bere taldeak irabazteko irrikan daude". Egin dezagun kontu, halaz ere, izenondo hauek ezin direla edozein izenen modifikatzaile izan: "erretzaile amorratua" / *"sendagile amorratua".

desberdinak dira–; bi atzizki?). Edozein moduz, garbi dagoena da *-zale* hau ez dela *zale* izenondoa.

4. ONDORIOAK

Erakutsi uste dugu bai *zain* eta bai *zale* predikatuak hiztegi-sarrerak direla eta ez atzizkiak. Maiztasunaren argibidea argumentu-egitura izatean datza. Argumentu-egitura hori lexikoan, hitz elkartuak sortuz, nahiz sintaxian asetzen dute. Hau dela eta, "osagarri-buru" egitura-harremanaz hitz egin dugu. Honek mendekotasunezko hitz elkartu arrunten "modifikatzaile-buru" egitura-harremanetik urrundu, baina aldi berean "mugakizun bereziko izen elkartu"etara hurbiltzen ditu: guztiek dute argumentu osagarria eta guztiek dute lexikoan asetzeko aukera. Erantzuna dago, hortaz, LEF batzordearen galdera.

Uste dugu hasierako irizpideetatik esanahi- eta kategoria-aldaketa baliagarriak direla, baina beste irizpide batzuez osatuta: hemen dator Morfologia Sortzailearen ekarria.

BIBLIOGRAFÍA

AZKARATE, M. (1990). *Hitz elkartuak euskaraz.* Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

_____ (1991). *Irakaskuntza proiektua*. (argitaragabea).

AZKUE, R.M. (1923-25). *Morfología Vasca* (1969, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca).

BALLY, CH. (1932). *Linguistique Générale et Linguistique Française* (1965, Berne: Éditions Francke).

BOSQUE, I. (1990). *Las categorías gramaticales.* Madrid: Síntesis.

CAMPION, A. (1884). *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara.* Tolosa: Lopez.

DEMONTE, V. (1999). "El adjetivo: clases y usos. La posición del adjetivo en el sintagma nominal", *Gramática descriptiva de la lengua española.* Madrid: Espasa, 129-215.

DIMITRESCU, F. (1969). "Notes sur les suffixoïdes dans le Roumain littéraire actuel", *Revue Romaine de Linguistique* 1, 3-6.

ELHUYAR (1996). *Euskara-Gaztelania,Castellano-Vasco Hiztegia.* Usurbil: Elhuyar. [ELH]

EUSKALTERM: www.euskadi.net/euskara.

EUSKALTZAINDIA (1987). *Hitz-elkarketa/*1. Bilbo: Euskaltzaindia. [H-E/1]

_____ (1991). *Hitz-elkarketa*/3. Bilbo: Euskaltzaindia. [H-E/3]

_____ (1992). *Hitz-elkarketa*/4. Bilbo: Euskaltzaindia. [H-E/4]

_____ (1999). *Euskal Gramatika Lehen urratsak-V (Mendeko perpausak).* Bilbo: Euskaltzaindia. [EGLU-V]

GIURESCU, A. (1970). "Observazioni sulla categoria dei Composti Romanzi", *Revue Romaine de Linguistique* XV-3, 261-266.

GRÁCIA, LL.; M. T. CABRÉ, S. VARELA, M. AZKARATE ET AL. (2000). *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario. Resultados del proyecto de investigación* DGICYT, PB93-0 546-C04. Bilbo: EHU.

GRIMSHAW, J. (1990). *Argument Structure.* Cambridge MA: The MIT Press.

GUILBERT, A. (1971). "De la formation des unités lexicales", *Introduction au Grand Larousse de la langue française*, T.I., IX-LXXXI. Paris: Larousse.

HENZEN, W. (1947). *Deustche Wortbildung*. Halle/Saale (1965, Tübingen).

LAFITTE, P. (1944). *Grammaire basque. (Navarro-Labourdin littéraire)*. 1979, Donostia: Elkar.

LIEBER, R. (1983). "Argument Linking and Compounds in English", *LI* 1, 251-285.

LIFETREE-MAJUMDAR, M. (1974). "Contribution à l'analyse des modes de composition nominale en français écrit contemporain", *Cahiers de Lexicologie XXV-1*, 63-84.

LOPEZ-MENDIZABAL, I. (1943). *La lengua vasca* (1977, Donostia: Auñamendi).

MARCHAND, H. (1960). *The Categories and Types of Present-day English Word-formation.* Wiesbaden.

MICHELENA, L. (1961). *Fonética Histórica Vasca.* Donostia: Diputación Provincial de Guipúzcoa [1977[2], 1985[3], 1990[3] 2. inpr.]. [FHV]

MICHELENA, L. & I. SARASOLA (1987-): *Orotariko Euskal Hiztegia.* Bilbo: Euskaltzaindia. [OEH]

ORTIZ DE URBINA, J. (1998). "Axularren *ezen* konpletiboa eta hizkuntza prozesamendua", *Studia Philologica in Honorem Alfonso Irigoien.* Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 151-162.

PEREZ GAZTELU, E. (2001). "Fronteras entre la sufijación y la composición: algunos casos del vasco (*alde, aldi, bide, kide, zain, zale*)" (eskuizkr.), *Estructuras morfológicas y estructuras sintácticas: las fronteras de la composición. Descripción, teoría y diccionarios*. DGES PB96-0457-C03 proiektua. (argitarabidean).

ROHRER, CH. (1967). *Die Wortzusammensetzung im modernen Französich.* Tübingen.

SARASOLA, I. (1996). *Euskal Hiztegia.* Donostia: Kutxa.[SEH]

SELKIRK, E. (1982). *The Syntax of Words*, [Linguistic Inquiry Monographs 7], London.

UHLENBECK, C. (1909). "Suffixes du Basque servant à la connaissance de la formation des mots en Basque", *RIEV III:*1, 401-430.

VILLASANTE, L. (1974). *Palabras vascas compuestas y derivadas.* Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.

ZABALA, I. (1993). *Predikazioaren teoriak Gramatika Sortzailean (Euskararen kasua).* Dokt. Tesia. UPV/EHU.

_____ (1997). "Argumentu-harremana / eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila", *Nazioarteko Terminologia Biltzarra.* Donostia: UZEI-IVAP, 535-565.